

Ezpalak

JON TORNER

Donostiako Jazzaldiko tokiko taldeen hautaketa fasea hasi da



MAIATZAREN 6RA BITARTEAN, tokiko hamabost taldek kontzertuak eskainiko dituzte Donostiako lau aretotan. Horieta-rik hamarrek parte hartuko dute 44. Jazzaldian. Lehen emanaldia Acido C taldeak eskaini zuen pasa den ostiralean, Victoria Eugenia Klub aretoan. Hurrengo kontzertua Flor Begué + Cristina Montull Trio taldearena izango da, hilaren 21ean, areto berean. Egitarau osoa eta taldeei buruzko informazioa www.jazzaldia.com webgunean aurki dezakezue: .

Etxepare Institutua abian da

EUSKAL KULTURA SUSTATZEA xede duen Etxepare Institutua Donostiako Tabakaleran kokatuko da, baina behin-behineko egoitza Prim kalean izango du. Egoitza hori egokitzen ari dira orain, eta lanak martxorako amaitzea espero duela adierazi du Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak. Bera da, hain justu, hauteskundeak egin arte behintzat, institutuko zuzendaria. Azaldu duenez, aurrekontua dekretuz onartzeak eta hamar lagunekoko lan taldea deialdi publiko bidez osatzeak dute orain lehentasuna.

Bilboko sei auzotara heldu da 'Expodistrito' erakusketa

ABANDO, San Inazio, Otxarkoaga, Begoña, San Frantzisko eta Zorrotza auzoetako gizarte-etxeetan margolan erakusketa bana izango da ikusgai martxoaren amaiera arte. Adierazpen artistikoak deszentralizatzea da *Expodistrito* egitasmoaren helburua. Inma Tejero, Juan Maria Saenz, Ianire Sagasti, Edelberto Alondo del Busto, Floro Oribe eta Ana Portillo artistek parte hartu dute aurtengo edizioan.

Barkoxeko herritarrek pasa den igandean eskaini zuten Maskaradaren lehenengo emanaldia, Barkoxen bertan. Azkena ere han egingo dute, apirilaren 12an. Tarteetan, beste hamar emanaldi eskainiko dituzte Zuberoako herrietan.

Luis Azanza argazkilaria iruindarraren irudiez osatutako erakusketa izango da ikusgai hilaren amaiera arte Iruñeko Contraluz galerian. *Deia*, *El Diario Vasco*, *El País*, *Le Monde* eta *Publico Lisboa* beste egunkari batzuentzako argazkiak egin ditu Azanzak.



Antonio Zavala jesulagun eta euskaltzain tolosarra hilaren 2an hil zen, 80 urterekin, Iruñeko San Miguel erietxean. Herri literaturaren arloan lan handia egin zuen Zavalak. Berak sortu zuen *Auspoa* bilduma 1961. urtean, eta 300 liburu baino gehiago argitaratu zituen, bertsolaritzari buruzkoak gehienak. Bertsolaritzaren eta herri literaturaren zein ahozko literaturaren izen esan- guratsuenen lanak argitaratu ditu *Auspoa* bildumak, hala nola Txirrita, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Udarregi, Errikotxia, Xenpelar edota Bilintxenak.

Borja Ruiz Osarte aktore eta antzerki zuzendari bilbotarrak irabazi du Artez Blai Kultur Elkar- teak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak aurrenekoz antolatu duten Arte Eszenikoen Ikerketarako Nazioarteko Saria. *El arte del Actor en el Siglo XX. Un recorrido teórico y práctico por las vanguardias* (Aktorearen artea XX. mendean. Ibilbide teo- ri-ko eta praktikoa abangoardietan zehar) lanari esker irabazi du saria Ruiz Osartek.



● **Juan Luis Goenaga pintoreak *Euskonews & Media* (www.euskonews.com) agerkari elektronikoan:** «Ez dut erakusketa bat modu txukun batean prestatzen, ezta koadro bat ere. Koadro bat margo- tzen hasten naizenean ez dakit zein bidetik eramango nauen, ezta zein itxura hartuko duen ere. Erakusketak egiten ditudanean momentuan dauzkadan obrak sail- katzen ditut. Pintatzen hasi baino lehen badaude era- baki beharreko gauza batzuk: erabiliko duzun oina- rria, aukeratuko dituzun pintzelak... Berezkotasunak

ez dauka ia presentziarik orduan, pintatzeko eran fisi- koa denez, bai. Gaiak, koloreak eta hauen arteko harremanak dira berezkoak».

● **Jon Garaño zinema zuzendariak *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian:** «Film laburrek duten arazoa zabalkunde da. Jaialdietara aurkezten ez bazara, ezin dituzu ezagutzera eman. Zinema aretoek ez dituzte proiektatzen. Irtenbideak? Ez dakit, agian zinema aretoetan filmen aurretik edo ondoren jartzea».

Abarak

JON TORNER

Popeye dela-eta zartakoka


POPEYE marinel espinakajaleak 1929ko urtarrilaren 17an eman zizkion aurreneko zupadak bere pipari, *Thimble Theatre* komiki tiretan. Elzie Crisler Segar estatubatuarra (Chester, 1894 - Santa Monica, 1938) sortu zuen pertsonaia hori. 80 urte bete dira Popeye jaio zela, eta 70 Segar hil zela. Zeresan franko emango duten zifrak dira. Eta, nork daki, litekeena da Europa eta AEBen arteko liskarra piztea.

Izan ere, egile eskubideei buruzko Europako legediak dioenez, autorea hil eta 70 urtera, bere obra jabetza publikora pasako da. Horrek esan nahi du Popeyeren marrazkiak libreki erabili ahal izango direla kamiseta, jostailu, bideo-joko, komiki eta abarretan. AEBetako *copyright* legediaren arabera, ordea, pertsonaiaren –kasu honetan, Popeyeren– sorreratik 95 urte igaro behar dira jabetza publikora pasatzeko; 2024ra arte, beraz, ez litzateke halakorik gertatuko. Kontuan izan behar da, bestalde, Popeye marka erregistratuaren jabea King Features Syndicate erakundea dela, AEBetako komiki tirak kon-

trolatzen dituen sindikatu indartsuenetako bat. “Marka erregistratua” eta “egile eskubideak” kontzeptuek ez diote legedi berrari jarraitzen, eta argi dago King Features sindikatuak bere esku dagoen guztia egingo duela Popeye bezalako diru iturri oparoa ez agortzeko.


Europarrek Segarren marrazkiak libreki erabiltzeko aukera izango dute, baina hori bai, Popeye, Olive Oyl eta Bluto bezalako marka erregistratuak erabiltzerik ez dute izango, ezta obra horiek AEBetan merkaturatzerik ere.

Egile eskubideen legedi konplexua auzitan jarriko dute orain zenbaitzuek, batez ere euren poltsikoei eragiten badie. Ahalik eta etekin handiena lortzen saiatuko dira besteak, jakin baitakite Popeye marinelen ostean Betty Boop, Mickey Mouse edo Superman bezalako pertsonaien txanda helduko dela.



Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

argia